

GIZONEN INDARKERIAREN ZAZPI P'AK

Une batez nire begiak jendetzatik urundu ziren, eta batzar-aretoko leiho txikietatik Himalaietara begira geratu nintzen, Katmandu iparraldeko paraje haietara. UNICEF eta UNIFEMek egindako lan garrantzitsuaren ondotik sortutako tailer bateko gidaria izateko ardura eman zidaten; urte bete lehenago bi erakunde horiek Asia hegoaldeko emakume eta gizonak elkartu zituzten emakume nahiz neskatilen aurkako indarkeriaren arazoa eztabaidatzeko, eta are garrantzitsuagoa dena, irtenbideak batera bilatzeko. [1]

Taldeko emakume eta gizon haiek berriro ikusi nituenean sentitu nuena ez zitzaidan arrotza egin, gertukoa baizik: arrisku handiak beren gain hartzen zituzten emakumeak – zenbait kasutan beren bizitzak arriskuan jarriz- emakume eta neskatoen aurkako indarkeria-oldea borrokatzeko. Gizonak, berriz, beren ahots anti-patriarkalak sumatzen hasiak ziren eta emakumeekin batean lan egiteko moduak bilatzen zituzten. Baina benetan modu atseginean harritu ninduen izan zen gizonen indarkeriaren inguruan aurkeztu nituen zenbait ideien inguruan jaso nuen erantzun positiboa izan zen. Ordura arte ez nengoen erabat seguru nagusiki Amerika iparraldeko zein hegoaldeko eta Europako errealitateak aztertzen zirenik –kultura oso europartuak alegia- edo oihartzun zabalagoa zutenik.

Horra hor azterketa horren muina.

Botere patriarkala: lehenengo “P”a.

Gizonen indarkeria-ekintza indibidualak “gizonen indarkeriaren hirukoa” izenarekin deskribatu dudaren baitan gertatzen dira. Emakumeen aurkako gizonen indarkeria ez da isolamendu-egoera batean gertatzen, aitzitik beste gizonezko batzuen aurkako gizonen indarkeriari eta indarkeriaren barneratzeari lotua dago; bere buruaren aurkako gizonaren indarkeriari alegia.

Izan ere, gizonak nagusi diren gizarteak ez dira emakumeen gaineko gizonen hierarkian bakarrik oinarritzen, zenbait gizonek beste gizon batzuen gainean duten hierarkian baizik. Gizonen arteko indarkeria edo indarkeria-mehatxua hierarkia-ordena hori ezartzeko mekanismoa da, haurtzaroz geroztik erabiltzen dena. Horren ondorioz, zenbait gizonek indarkeria “barneratu” egiten dute, edo agian, litekeena da gizarte patriarkalaren eskaerek instintu biologikoak piztea, bestela nolabait lo geratuko liritekeenak edo onberak izango liritekeenak. Ondorio bakarra ez da haur eta gizonek indarkeria modu selektiboan erabiltzen ikastea, baita ere, aurrerago ikusiko dugun lez, emozio-multzo bat haserre bihurtzea, zeina, batzuetan, beren buruen aurkako indarkeria bilakatzen baita, sustantzien abusua eta norberaren kalteko jokabideak kasu.

Gizonen indarkeriaren hiruko hori –indarkeria-modu bakoitzak besteak sortzen laguntzen du- indarkeria elikatzen duen giro batean gertatzen da: antolakuntza eta gizarte patriarkalen edo gizonak nagusi diren gizarteen eskaerak.

Negozioak egiteko garaian indarkeriaren erabilera errotu duena, eta giza harremanetan de facto arau gisa naturalizatu duena gure ideologia eta giza egituretan artikulatua izan den modua da. Erraz ulertzeko eran esateko, giza taldeek ideologiak sortzen dituzte gizartea antolatzeko modu auto-iraunarazleak eta sortutako errealitate horiek azaldu, esanahiarekin hornitu, justifikatu eta elikatzeko helburuarekin.

Ideologia eta egitura horietan ere ehuntzen da indarkeria arrazoi erraz bategatik: talde jakin batzuei izugarritzko onurak ekarri dizkie; hasteko eta behin indarkeria (edo gutxienez indarkeria-mehatxua) oso baliagarria izan zaie gizonei (talde gisa) pribilegioak eta boterea lortzeko. Izan ere, hierarkia eta giza boterearen forma originalak sexuan oinarritzen ziren, eta orduan, aspaldi hartan, botere- eta pribilegio-modu egituratu guztientzako eredu bat sortu zen, hain zuzen ere batzuek gozatzen dituztenak ezaugarri jakin batzuei esker, hala nola, gizarte-maila, azalaren kolorea, adina, erlijioa, sexu-joera edo gaitasun fisikoak. Testuinguru horretan indarkeria edo indarkeria-mehatxua etengabeen pribilegioak baliatzeko edo boterea erabiltzeko modua bihurtzen da. Eta, era berean, emaitza bat eta helburu bat lortzeko baliabidea da.

Pribilegioak izateko modua ulertzeko eskubidea: bigarren “P”a.

Baliteke indarkeria erabiltzen duen gizon baten esperientzia indibidualak loturarik ez izatea botereari eusteko nahiarekin. Kasu honetan gakoa ez da bere esperientzia kontzientea. Aitzitik, azterketa feministak behin eta berriz azpimarratu duenaren arabera, gizon horrek zenbait pribilegio izateko eskubidea ulertzeko moduaren ondorio logikoa da. Gizon batek bere emaztea jotzen badu afaria bere garaian mahaian prest ez izategatik, ez du egiten berriro ez dela gertatuko ziurtatzeko bakarrik, jokabide horren atzean zerbitzatua izateko eskubidea duela pentsatzen duen gizona ageri baitzaigu. Beste adibide bat da hitzordu batean emakumeari sexu-erasoa egiten dion gizona: plazer fisikoa izateko eskubidea ulertzeko moduarekin du zerikusia horrek, nahiz eta plazer hori guztiz aldebakarrekoa izan. Beste hitz batzuekin esanda, hainbat emakumek adierazi duten lez, ez dira botere-desberdintasunak indarkeria-eragile bakarrak, pribilegioen eskubidea ulertzeko modu kontziente edo, askotan, inkontzientea baizik.

Hirugarren “P”a: baimena

Gizonen indarkeriaren atzean dauden arrazoi sozial eta psikologiko konplexuak gorabehera, indarkeria ez litzateke gailenduko giza ohituretan, lege-kodeetan, legearen aplikazioan eta zenbait erlijio-irakaspenetan ez balego, horiek guztiak baimen esplizitu edo isilekoak baitira indarkeria erabiltzeko. Herrialde askotan, emazteen aurkako indarkeriari edo sexu-indarkeriari buruzko legeak arinak dira edo ez dago horrelako legerik; beste batzuetan, legeak apenas betearazten dira; eta beste askotan zentzurik ez duten legeak daude, esate baterako, herrialde batzuetan bortxaketa-salaketa bat aurrera eramateko beharrezkoa da gizonezko testiguak izatea, eta beste askotan emakumearen testigantza ez da kontuan hartzen.

Bien bitartean gizonen indarkeria-ekintzak edo indarkeriazko erasoak (kasu honetan gizonen aurka gehienbat) ohikoak dira kirolean eta zineman, literaturan eta gerran. Biolentzia onartua dago; baino ez hori bakarrik, xarma du eta saritu egiten da. Gizarte patriarkalen sustrai historikoa bera indarkeriaren erabilera da, borroka eta desberdintasunak konpontzeko baliabide garrantzitsua baitzen, bai norbanakoen artean, bai gizon-taldearen artean, eta baita ere, geroago, herrien artean.

Askotan baimen hori gogoratzen dut kolpatua izaten ari zen emakume edo haurra ikusita poliziarri deitu ez zion gizon edo emakume bati buruz hitz egiten entzuten dudanean. Hori kontu “pribatua” dela uste da. Imajina al dezakegu denda barruko lapurrari begira dagoen norbaitek poliziarri deitzeko asmorik ez izatea gaizkilearen eta saltokiko jabearen arteko kontu pribatua dela uste izateagatik?

Laugarren “P”a: gizonen boterearen paradoxa

Nik, ordea, uste dut gauza horiek ez dutela azaltzen, berez, gizonen indarkeriaren izaera barreiatua, ez eta emakumeen aurkako gizonen indarkeriaren arteko loturak, ezta gizonen arteko indarkeria-modu anitzak ere. Puntu honetan beharrezkoa da gizonen boterearen paradoxak berrikustea edo “gizonen arteko boterearen esperientzia kontrajarriak” deitu dudana. [3]

Gizonek botere soziala eta indibiduala eraikitzeko erabili dituzten moduak beldur-, isolamendu- eta beren buruarentzako min-dosi handi baten iturri dira. Besteak mendean hartu eta kontrolatzeko gaitasun gisa eraikitzen bada boterea, modu “boteretsuan” jarduteko gaitasunak armadura pertsonala eraikitzea eta besteekiko distantzia gordetzea eskatzen badu, boterearen eta pribilegioen munduak urrundu egiten bagaitu haurren hazkuntzatik eta sostengu emozionaletik, sortzen ari garen gizonek boterearekin duten esperientzia arazo ezgaitzaileez bete dagoela esan dezakegu.

Maskulinitasunari buruz barneratutako usteak lortu ezinak direlako gertatzen da hori. Ezbairik gabe patriarkatuari atxikitako arazoa izan daiteke, baina bereziki egia dirudi generoaren mugak eraitsiak izan diren aro eta kulturetan. Izan lorpen fisikoak edo finantzarioak, edo emozio-sorta baten nahiz giza premien ezabatzea, badirudi gizontasunaren manamenduek (maskulinitasun biologikoaren ziurtasun bakunekin kontrajarritak) etengabeko zaintza eta lana eskatzen dutela, bereziki gizonen gazteenentzat.

Gizontasun-proba gainditzeko gaitasun ezak sortutako segurtasun gabeziagatik edo porrot egiteko mehatxu hutsagatik gizon asko, bereziki gazteak direnean, zulo batean erortzen dira, beldurra, isoladura, hira, norbera zigortu eta zapuzteko joera eta eraso nagusi diren zuloa.

Egoera emozional horretan, indarkeria konpentsaziozko tresna bihurtzen da. Berriz gizonen oreka ezartzeko modua da, beren burua berretsi eta besteen aurrean norberaren

gizontasun-sinestamenduak erakusteko modua da. Indarkeria hori adierazteko gehienetan fisikoki ahulagoa edo zaurgarriagoa den norbait aukeratzen da. Izan daiteke haur bat, emakumea bat, edo talde sozial jakin batzuk, hala nola homosexualak edo gutxiengo erlijioso edo soziala, edo etorkinak, zeinak gizonen segurtasun ezaren eta hiraren jomuga errazak baitira, bereziki askotan talde horiek ez dutelako jaso legearen babes egokia. (Konpentsazio-mekanismo hori oso argi ikusten da, besteak beste, gazte taldeek homosexualei egiten dizkieten eraso gehienetan, segurtasun eza maila gorenera iristen den unea izaten baita gizontasun-proba gainditu behar delako).

Indarkeria norberaren konpentsazio-mekanismo gisa erabil daiteke oso onartua dagoelako desadostasunak konpontzeko eta boterea nahiz kontrola berresteko. Hori guztia posible egin dute gizonak izan duten botereak eta pribilegioek, sinesmenetan kodifikatua dagoenak, praktikek, giza-egiturek eta legeek.

Eta beraz, gizonen indarkeria-modu ugariak baldintza-multzo baten emaitza dira: gizonen boterea, pribilegioak izateko eskubideaz duten ikuspegia, zenbait indarkeria-modu erabiltzeko baimena eta botererik ez izateko beldurra (edo ziurtasuna).

Baina hori ez da guztia.

Bosgarren “P”a: gizontasunaren armarri psikikoa

Besteekiko distantzia emozionalean oinarritutako izaera-egitura baten emaitza ere bada gizonen indarkeria. Askok eta askok iradoki dugun lez, gizontasunaren egitura psikikoak heziketa-jarraibide goiztiarretan sortzen dira, askotan aitaren edo gizon helduen absentiagatik tipifikatuak –edo gutxienez gizonen distantzia emozionalagatik. Kasu horretan gizontasuna absentsia horrek kodifikatzen du eta fantasia-mailan eraikitzen da. Baina gizonaren presentzia handiagoa den kultura patriarkaletan ere, ama nahiz feminitatearekiko gaitzespenaren bidez kodifikatzen da maskulinitatea, hau da, zaintza eta euskarri emozionalekin lotutako ezaugarriak baztertzen dira. Hainbat psikoanalista feministek azpimarratu dutenez, horrek egoaren hesi finkoak sortzen ditue do, terminologia metaforikoa erabilita, armarri sendo bat.

Garapen psikologikoko prozesu konplexu eta partikular horren ondorioz enpatia (beste pertsona batzuk sentitzen ari direnaren esperientzia) sortzeko gaitasuna gutxitu egiten da, eta beste pertsona batzuen premia eta sentimenduak norberak dituenekin nahitaez lotuta dauden zerbait direla sentitzeko gaitasuna galtzen da. Eta horrenbestez, beste pertsona baten aurkako indarkeria-jarduerak baimenduak daude. Zenbat aldiz entzuten diogu gizon bati “berak ez ziola minik eman” jo zion emakumeari? Bai, bere burua zuritzen ari da, baina arazoaren zati bat izan daiteke berak benetan ez duela sentitzen eragiten duen mina. Zenbat aldiz entzuten diogu gizon bati “berak sexu-harremanak izan nahi zituen” esaten? Berriro ere baliteke bere burua zuritu nahian ibiltzea, baina beste pertsona batzuen sentimenduak irakurri eta ulertzeko gaitasun urriaren isla ere izan daiteke.

Seigarren “P”a: maskulinitasuna presio-heltze psikiko baten moduan

Gure maskulinitasun-modu menderatzaile askoren atzean dago emozio-multzo baten barneratzea eta gero horiek hiran eraldatzea. Kontua ez da gizonen emozioen hizkuntza mutua izatea askotan edo gure antena emozionalak eta enpatia sentitzeko gaitasuna urriak izatea. Izan ere hainbat eta hainbat emozio natural bazterrean utziak izan dira baliogabetzat jo direlako. Nolanahi ere, horrek badu espezifikotasun kultural bat, nahikoa ohikoa baita mutikoen txikitatik beldur- eta min-sentimenduak itotzen ikastea. Kiroletan mutikoei minari jaramonik ez egiten erakusten zaie. Etxean negarrik ez egiteko eta gizonen moduan jarduteko esaten diegu. Zenbait kulturek maskulinitasun estoikoa ospatzen dute. (Eta azpimarratu nahi nuke hurrek bizirauteko ikasten dutela hori guztia- horregatik garrantzitsua da mutiko edo gizonei egun dituzten jarreraren jatorriaren errurik ez botatzea, nahiz eta beren ekintzen erantzule egin).

Gizakiak garen aldetik erantzun emozional bat sortzen duten gertakariak bizi ditugu. Baina erantzun emozionalen ohiko mekanismoek, hala nola emozio baten benetako bizipenak edo sentimenduen adierazpenak, zirkuitulaburrak eragiten dituzte gizon askoren kasuan. Baina, beste behin, gizon askorentzat nolabaiteko balioa duen emozio bakarra hira da. Eta ondorioz, hainbat emozio hiraren bidez bideratzen dira. Baina emozioak bideratzeko modu hori ez da gizonen bakarrik dagokiena (eta ez da gizon guztien kasua), izan ere batzuetan ez da arraroa izaten indarkeriarekin erantzutea beldur eta oinazearen aurrean, segurtasun ezaren eta minaren aurrean, bazterkeriaren eta gutxiespenaren aurrean.

Aurrekoa bereziki egia da sortutako sentimendua botere-eza denean. Sentimendu horrek gizonen segurtasun gabeziak areagotzea baino ez du egiten: maskulinitasuna botere eta kontrol kontua bada, boteretsua ez izateak gizona ez izatea esan nahi du. Eta horrela beste behin indarkeria da bere buruari eta besteei aurkakoa erakusteko modua.

Zazpigarren “P”a: iraganeko esperientziak

Zenbait gizonentzat hori guztia esperientzia nabarmenagoekin konbinatzen da. Gizon gehiegi hazi ziren aita ama jotzea ohikoa zen etxeetan. Emakumeen aurkako indarkeria-jarrerak araua, bizitzeko modua zirela ikasi zuten. Egoera horren ondorioz batzuek erabat baztertzen dute indarkeria, eta beste batzuk berriz ikasitakoa errepikatzen dute. Kasu askotan bi gauzak gertatzen dira: emakumeen aurka indarkeria erabiltzen duten gizonen beren burua eta jarrerak gogor arbuaitzen dituzte.

Baina “ikasitako erantzuna” sinplista da. Azterketek erakutsi dute indarkeria-jarrerak ikusiz hazi diren neska-mutikoek aukera asko dituztela indarkeriarekin erantzuteko. Indarkeria hori arreta jasotzeko modu bat izan daiteke; besteak maneiatzeko mekanismo bat izan daiteke, eskuetatik alde egiten dieten sentimenduak kanporatzeko modu bat.

Jarrera-eredu horiek haurtzaroz haratago doaz: indarkeria erabiltzen duten gizonentzako programetan parte hartzen duten asko amaren aurkako gehiegikerien edo beren aurkako erasoen testiguak izan ziren.

Gizon askok bizitako esperientzien artean daude beraien aurkako indarkeria-esperientziak. Hainbat kulturetan neskek baino bi aldiz aukera gutxiago dituzte mutikoen sexu-gehegikeriak jasateko, ordea, mutikoen bi aldiz aukera gehiago dituzte gehiegikeria fisikoak jasateko. Horrek ez du beti emaitza bera ematen, eta emaitza horiek ez dira mutikoei eragiten dietenak bakarrik, baina zenbait kasutan esperientzia pertsonal horiek nahasmendu- eta frustrazio-eredu sakonak sortzen dituzte, eta horien bidez hurrek ikasi dute maite den pertsonari mina eman dakiokela, eta hira-agerpenek bakarrik ezaba ditzaketela erro sakonak dituzten min-sentimenduak.

Azkenik hurren arteko indarkeria-eremu hutsala dago, haurtzaroz garrantzirik gabea dirudiena. Kultura askotan hurrek borroka-, zirikatzeko- eta basakeria-esperientziak izaten dituzte. Batzuetan beharrezkoa da indarkeria barneratu eta jarrera-arau gisa onartzea bizirauteko.

Indarkeriari amaiera jartzea

Azterketa oso modu laburtuan aurkeztu da, baina iradoki nahi du gizonen indarkeriari buruz eztabaidatzean beharrezkoa dela jarraian ageri dena kontuan hartzen duen erantzun artikulatua ematea:

- Gizonen botere- eta pribilegio-egiturei desafio egin eta suntsitzea, eta indarkeria-ekintzekiko onspen kultural eta sozialarekin amaitzea. Indarkeria hasten den tokia hori bada, ezinbestekoa da emakume nahiz gizonen feminismoa eta eraberritze zein eraldaketa sozial, politiko, legezko eta kulturalak babestea.

- Maskulinitasuna berriro definitzea edo, hobeto esanda, arriskua eragiten duten genero egitura psikiko eta sozialak behera botatzea. Patriarkatuaren paradoxa boterea eta pribilegioak jasotzen dituen espezie erdiaren samina, hira, frustrazioa, isolamendua eta beldurra dira. Gizonengana iristeko bide arrakastatsua egiteko, lan honen premisak izan behar dute errukia, maitasuna eta errespetua, betiere arau maskulino negatibo eta horien emaitza suntsitzaileekiko erronka garbi batekin. Lan hau egiten dugun feminismoaren aldeko gizonak beste gizonei hitz egin behar diegu gure anaiak balira bezala, eta ez gu bezain argieginak ez diren arrotzei bezala.
- Gizonak antolatu eta beraien parte-hartzea bultzatzea emakumeekin batera lan egin dezaten gizartearen genero-antolaketa forma berri bat emateko, bereziki gure instituzioak eta neska-mutikoak hazteko sortzen ditugun harremanak. Horrek esan nahi du askoz garrantzi handiagoa eman behar zaiola euskarri emozionalari eta zaintzaile-betebeharrari dagokionean gizonak betetzen duten paperari, eta erabat txertatu behar direla hurren hazkuntza-prozesuan forma positiboekin eta indarkeriarik gabe.
- Indarkeria erabiltzen duten gizonekin lan egitea beren ikuspuntuak eta pribilegio patriarkalak zalantzan jartzeko eta beraiengana errespetuaren eta errukiaren bidez iristeko. Ez da beharrezkoa egin dutena gure gustukoa izatea beraiekiko enpatiarekin jokatzeko eta haur bat batzuetan gauza izugarriak egiten dituen gizon bat bihurtzera eraman duten faktoreekiko laztura sentitzeko. Errespetu horri eskerrak gizon horiek beren burua aztertzeke eta bata besteak aztertzeke eremua aurki dezakete. Bestela, beraiengana iristeko saiakerak gizonezkoak diren aldetik dituzten segurtasun ezak elikatzea baino ez du egingo, horientzat guztientzat indarkeria izan baita beren ohiko kopentsazio-modua.

- Heziketa-jarduera zehatzak egitea, hala nola Lazo Zuriaren Kanpaina, zeinak gizon nahiz mutikoak hartzen baititu kontuan, beren burua nahiz beste gizon batzuk aztertzeko eta era horretan indarkeria-modu guztiekin amaitzeko. [4] Hau erronka positiboa da gizonak emakume, neska-mutiko eta beste gizonetikiko dugun maitasun eta errukia adieraz dezagun.

Toronto, Kanada

1999ko urria

OHARRAK

[1] Tailer hori *Save the Children* (Erresuma Batua) erakundeak antolatu zuen. Bidaia finantzatzeko baliabideak Kanadako *Development Services International* erakundeak eman zituen. 1998ko tailerrean eztabaidatu zen Ruth Finney Hayward-en “Breaking the Earthenware Jar” liburuan jaso zen (2000.urtean argitaratuko dena). Ruth izan zen Katmanduko bilerak bultzatu zituen.

[2] Michael Kaufman, “The Construction of Masculinity and the Triad of Men`s Violence”, argitaratzailea, M. Kaufman. “Beyond Patriarchy: Essays by Men on Pleasure, Power and Change”. Toronto: Oxford university Press, 1985. Ingelesez berrargitaratua Laura L.O`Toole eta Jessica R, Schiffmanen “Gender Violence” -en (Nueva York; NY University Press, 1997) eta Michael S.Kimmel eta Michael A. Messner-en “Men`s lives”-en laburbildua (Nueva York: Macmillan, 1997); alemanieraz BauSteineManner-en “Kritische Männerforschung” (Berlin: Arument Verlag, 1996); eta gaztelanieraz “Hombres: Poder, placer y cambio” (Santo Domingo: CIPAF, 1989).

[3] Michael Kaufman, “Craking the Armor: Power, Pain and the Lives of Men” (Toronto: Viking Canada, 1993 eta Penguin, 1994), “Men, Feminism and Men’s Contradictory Experiences of Power”; Harry Brod eta Michel Kaufman argitaratzaileen eskutik, “Theorizing Masculinities” (Thousand Oaks, CA: Sage Publications, 1994), gaztelaniara itzulia “Los hombres, el feminismo y las experiencias contradictorias del poder entre los hombres” izenburuarekin; Luz G. Arango eta al, argitaratzaileen eskutik “Genero e identidad. Ensayos sobre lo femenino y lo masculino” (Bogota: Tercer Mundo, 1995), eta modu laburbilduan “Las experiencias contradictorias del poder entre los hombres; Teresa Valdes eta Jose Olavarria argitaratzaileen eskutik “Masculinidad/es. Poder y crisis”, Ediciones de las mujeres, 23. zenbakia (Santiago: Isis Internacional eta FLACSO-Chile, 1997ko ekaina).

[4] White Ribbon Campaign (Lazo Zuriaren Kanpaina), 365 Bloor St. East, Suite 1600, Toronto, Kanada M4W 3L4. Tel. 1-416-920-1678. Testu honetako hainbat ideia nirekin eztabaidatu zituztenei eskerrak eman nahi dizkiet: Jean Bernard, Ruth Finney Hayward, Dale Hurst, Michael Kimmel, Lazo Zuriaren Kanpainan lagun izan ditudanak eta emakume bat Woman’s World ‘99n, Tronson (Noruega), zeinak, bere izena ez eman arren, testu honen aurreko bertsio bati buruzko eztabaida luze batean iradoki baitzuen garrantzitsua zela berariaz nabarmentzea baimenak “P”tako bat izan behar zuela.